AGINDUA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUARENA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILAREN 2019RAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, DLO) 8. artikuluan xedatzen du administrazio publikoek dirulaguntzei buruzko plan estrategiko bat (aurrerantzean, DPE) egin behar dutela nahitaez. Bertan zehaztuko dituzte berori aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, bai eta horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzatzeko iturriak ere; betiere, printzipio hauek bermatuta: publikotasuna, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Nolanahi ere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen mende.

DLOren 8. artikulu hori garatzera etorri da DLOren erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsia, hain zuzen ere, bere atariko tituluko ─«Xedapen Orokorrak»─ III. kapituluko ─«Dirulaguntzetarako xedapen erkideak» ─ I. atala ─«Dirulaguntzen plan estrategikoak», zeinak, errege dekretu horren azken xedapenetatik lehenaren arabera, ez baitu Estatuaren oinarrizko arauen izaerarik. Aurrekoa gorabehera, eta ikusirik gure erregulazio autonomikoak ez duela plan horiek egiteko betebeharrik aurreikusten, kontuan hartu dira erregelamendu horren xedapenak Sail honetako urteko plan estrategikoa prestatzeko orduan.

Horiek horrela, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 3. artikuluak emandako eskumenei jarraikiz, hau

EBAZTEN DUT:

Bakarra.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren 2019rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea, agindu honen eranskin gisa jartzen baita.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua

Nahi izanez gero, J0D0Z-T1HMC-NRC2 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1HMC-NRC2 en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

Eranskina

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2019)
Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau egin du (aurrerantzean, DPE), aintzat hartuta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, DLO) xedatu duena, eta bat etorrita dirulaguntzen plan estrategikoak egiteko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 Zirkularreko jarraibideekin.

DPEa kudeaketa-tresna programatiko bat da, arau-lerrunik gabea. Beraz, ez dizkie ez eskubideak ez betebeharrak sortzen onuradun izan daitezkeenei. Plana eraginkorra izan dadin, hainbat dirulaguntza lerro jarri beharko dira martxan; betiere, besteak beste, ekitaldi bakoitzean erabilgarri dagoen aurrekontua aintzat hartuta.

Bada, plana bultzatzen duen sailak eginiko jarraipen-txostenen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak igorritako txostenen emaitzetan ikusten bada dirulaguntza lerro batzuek ez dituztela helburuak espero bezala betetzen, edo inbertitutako baliabideen mailan ez dutela emaitza egokia ematen, dirulaguntza horiek aldatu egin ahalko dira, edo eraginkorragoak eta efizienteagoak diren beste batzuekin ordeztu, edota, hala badagokio, kendu.

2. ESPARRU SUBJEKTIBOA ETA DENBORAZKOA

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak kudeatzen dituen dirulaguntzak jasotzen ditu DPE honek, bat eginez Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 6. artikuluan jasotzen diren eskumenekin. Dekretu horrek, gogoratu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu ditu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu. DPE honek jasotzen ditu dirulaguntzak 24/2016 Dekretuak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari honako arlo hauetan ematen dizkion eskumenak erabiliz: Toki Administrazioaren arloan, Euskadiko Foru Zuzenbide Zibil eta Bereziaren arloan eta Administrazioaren modernizazioaren eta erreformaren arloan; baita legeek eta erregelamenduek esleitzen dizkioten beste gaietan ere, hain zuzen, negoziazio kolektiboaren arloan eta Autonomia Erkidegoko herritarren artean informazio-gizartea sustatzearen arloan.

Denboraren eremuari dagokionez, DLOren Erregelamenduaren 11.4. artikuluarekin bat eginez, abian den urterako aurreikuspenak jasoko ditu DPEak, hots, 2019koak, aurreikusten dituen dirulaguntzen izaera bereziaren arabera.

3. HELBURU OROKORRAK

Askotariko helburuak bete nahi ditu sail honek sustapen-jarduerarekin, aipatutako 24/2016 Dekretuak esleitutako eskumen-eremu ezberdinak kontuan hartuta:

1. Vitoria-Gasteiz sustatzea EAEko erakunde erkideen egoitza gisa.
2. EAEko toki-erakundeen toki-autonomiaren garapena.
3. Euskal fundazioei laguntzea fundazio horiek legezko betebeharrak bete ditzaten.
4. Euskal Zuzenbide Zibilari eta Autonomikoari buruzko ikasketa, zabalkundea eta informazio publikoa eguneratzea 2019ko ekitaldian.
5. Open Data Euskadi webgunearen berri ematea eta haren datu-katalogoaren potentziala erakustea, datu irekien erabilera eta haietatik eratorritako zerbitzuen sorrera sustatzea, bai eta datuok berrerabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboek gehien eskatzen dituztenak zehaztea, datu horiek irekitzeko ahalegin handiagoa egiteko.
6. Herritarrek parte hartzeko proiektuen bitartez, erakundeen laguntzarekin edo gabe, herritar antolatuek sortutako balio publikoa aitortu eta ikusaraztea, Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria hedatzeko konpromiso gisa.
7. Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak sustatzea Euskadiko biztanleguneetan.

Sailaren dirulaguntzak hartzen ditu planak, eta organo hauek kudeatuko dituzte horiek:

1. Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.
2. Araubide Juridikoaren Sailburuordetza.
3. Lan Harremanen Zuzendaritza.
4. Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.
5. Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritza.

Aurreko guztia aintzat hartuta, helburu orokor hauek lortu nahi dira DPE bat egiten denean:

1. Xedetzat erabilera publikoko edo gizartearen intereseko jarduerak sustatzea duten politika publikoak planifikatzeko tresnaz hornitzea sail hau, bere eskumeneko arloetan.

2. Ikuspegi ekonomiko-finantzariotik begiratuta, dirulaguntzen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea ahalbidetuko duten kudeaketa-tresna uniformeagoak zehaztea.

3. Informazio publikorako sarbidea ahalbidetzea, gardentasunaren eta gobernamendu onaren praktiken ikuspegitik abiatuta.

4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA-LERROAK

DPEaren ardatz estrategikoak zerrendatzen dira orain, sailetako unitate organikoen arabera; bai eta aurrekontu-programetan ezarritako xedeekin duten lotura azalduko ere.

1. TOKI ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETARAKO ETA ADMINISTRAZIO ERREGISTROETAKO ZUZENDARITZA

a) VITORIA-GASTEIZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO (EAE) ERAKUNDE ERKIDEEN EGOITZA IZATEAGATIKO KANONA

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: helburuak, ekintzak eta adierazleak.

1. helburu estrategikoa: Vitoria-Gasteiz sustatzea EAEko erakunde erkideen egoitza gisa.	
Dirulaguntzaren lerroa: VITORIA-GASTEIZ. EAEko erakunde erkideen egoitza izateagatiko kanona.	
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.	
Programa: 12170	2017-2020
Helburua: Hitzarmena Vitoria-Gasteizko Udalarekin, Vitoria-Gasteizen sustapena finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza den aldetik. Ekintza: Vitoria-Gasteizko Udalari dirulaguntza ematea, Vitoria-Gasteiz hiria Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza gisa sustatzeko. 1. adierazlea.- Argiteria publikoagatik ordaindutako gastuak (argiaren kontsumoa eta konponketak); bide eta azpiegitura publikoen mantentze-lanak (kontserbazio-gastuak eta konponketak); bide-garbiketa eta HHSen bilketa eta garraioa (garbiketa zerbitzua), bidaiarien hiri-garraioa (TUVISAren aldeko ekarpena) eta herritarren segurtasuna (Udaltzaingoa, langile-gastua eta gastu arruntak). 2. adierazlea.- Hiriko esparru publikoan egindako birgaitze- eta mantentze-lanak. 3. adierazlea.- Azpiegitura eta ekipamendu publikoetan egindako inbertsioak.	

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.

1. helburu estrategikoa: Vitoria-Gasteiz sustatzea EAEko erakunde erkideen egoitza gisa.				
Dirulaguntzaren lerroa: VITORIA-GASTEIZ. EAEko erakunde erkideen egoitza izateagatiko kanona				
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza	2019		2020	
Programa: 12170	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%
4. kapitulua 7. kapitulua	6.500.000 3.500.000	100 100	6.500.000 3.500.000	100 100

Guztira	10.000.000	100	10.000.000	100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: zer sektoreri zuzentzen zaion eta emateko prozedura.

1. helburu estrategikoa: Vitoria-Gasteiz sustatzea EAEko erakunde erkideen egoitza gisa.	
Dirulaguntzaren lerroa: VITORIA-GASTEIZ. EAEko erakunde erkideen egoitza izateagatiko kanona.	
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.	
Programa: 12170	
Sektore hartzaileak:	EAEko udalerriak: Vitoria-Gasteizko Udala.
Emateko prozedura:	Zuzeneko dirulaguntza, Gobernu Kontseiluaren erabakiaren/hitzarmenaren bitartez.

b) EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA-ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS (EUDEL), EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO APIRILAREN 7KO 2/2016 LEGEAREN HELBURUAK LORTZEKO EKINTZEN SUSTATZEA

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: helburuak, ekintzak eta adierazleak.

2. helburu estrategikoa: EAEko toki-erakundeen toki-autonomiaren garapena.	
Dirulaguntzaren lerroa: **EUDEL. ETELaren helburuak lortzeko ekintzen sustatzea.**	
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.	
Programa: 12170	2018
Helburua: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezartzen dituen helburuak lortzea. Ekintza: Euskadiko Udalen Elkartea-Asociación de Municipios Vascos (EUDEL) elkarteari dirulaguntza ematea ETELaren helburuak lortzeko sustatze-ekintzen gastu arruntak ordaintzeko. EUDEL EAEren eremuan kide gehien dituen udal-elkartea da eta horregatik hartzen ditu bere gain aipatutako gastuak. 1. adierazlea.- Formazio-ekintzengatiko gastuak, egin beharreko jardunaldiak, agiri- eta argitalpen-zerrenda. 2. adierazlea.- ETELarekin bat datozen helburuak dituzten ekintzak.	

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.

2. helburu estrategikoa: EAEko toki-erakundeen toki-autonomiaren garapena.				
Dirulaguntzaren lerroa: EUDEL. ETELaren helburuak lortzeko ekintzen sustatzea.				
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza	2019		2020	
Programa: 12170	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%
4. kapitulua	100.000	100	100.000	100
Guztira	100.000	100	100.000	100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: zer sektoreri zuzentzen zaion eta emateko prozedura.

2. helburu estrategikoa: EAEko toki-erakundeen toki-autonomiaren garapena.	
Dirulaguntzaren lerroa: EUDEL. ETELaren helburuak lortzeko ekintzen sustatzea.	
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.	
Programa: 12170	
Sektore hartzaileak:	Irabazi asmorik gabeko beste instituzioak: Euskadiko Udalen Elkartea-Asociación de Municipios Vascos (EUDEL).
Emateko prozedura:	Zuzeneko dirulaguntza Gobernu Kontseiluaren akordioaren bitartez.

c) DIRULAGUNTZA ZUZENA FUNKO EUSKADIKO FUNDAZIOEN KONFEDERAZIOARI, PRESTAKUNTZA-JARDUERAK FINANTZATZEKO ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIO-SEKTOREA SENDOTZEARI LAGUNTZEKO

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: helburuak, ekintzak eta adierazleak

3. helburu estrategikoa: Euskadiko fundazioen legezko betebeharrak betetzeari laguntzea, FUNKO Euskadiko Fundazioen Konfederazioari dirulaguntza zuzena emanez.
Dirulaguntzaren lerroa: Dirulaguntza zuzena FUNKO Euskadiko Fundazioen Konfederazioari.
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

Programa: 12170	2019
Helburua: Dirulaguntza zuzena ematea FUNKO Euskadiko Fundazioen Konfederazioari, Euskadiko fundazioen legezko betebeharrak betetzeari laguntzeko. Ekintza: Dirulaguntza zuzena ematea FUNKO Euskadiko Fundazioen Konfederazioari, Euskadiko fundazioen legezko betebeharrak betetzeari laguntzeko. 1. adierazlea: Diruz lagundutako ekintzak dituzten prestakuntza- edo zabaltze-egunak, non egingo diren zehazten dituztenak. 2. adierazlea: Dagozkien prestakuntza- eta zabaltze-ekintzetan zenbat pertsonek hartu duten parte.	

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publikoaren globalarekiko finantzaketa-ehunekoa.

3. helburu estrategikoa: Euskadiko fundazioen legezko betebeharrak betetzeari laguntzea, FUNKO Euskadiko Fundazioen Konfederazioari dirulaguntza zuzena emanez.		
Dirulaguntzaren lerroa: Dirulaguntza zuzena FUNKO Euskadiko Fundazioen Konfederazioari.		
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza	2019	
1. programa: 12170	Zenbatekoa (€)	%
4. kapitulua	15.000,00	100
Guztira	15.000,00	100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: zuzenduta dagoen/dauden alorra/k eta emateko prozedura.

3. helburu estrategikoa: Dirulaguntza zuzena ematea FUNKO Euskadiko Fundazioen Konfederazioari, Euskadiko fundazioen legezko betebeharrak betetzeari laguntzeko.	
Dirulaguntzaren lerroa: Dirulaguntza zuzena FUNKO Euskadiko Fundazioen Konfederazioari.	
1. organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.	
1. programa: 12170	
Sektore hartzaileak:	Euskadiko Fundazioen Erregistroan inskribatuta dauden fundazioak.
Emateko prozedura:	Zuzeneko dirulaguntza Gobernu Kontseiluaren erabakiaren/hitzarmenaren bitartez.

2. ARAUBIDE JURIDIKOAREN SAILBURUORDETZA

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: helburuak, ekintzak eta adierazleak.

4. helburu estrategikoa: Euskal Zuzenbide Zibilaren eta Autonomikoari buruzko ikasketa, zabalkundea eta informazio publikoa eguneratzea 2019ko ekitaldian.	
Dirulaguntzaren lerroa: Zuzenbidearen Euskal Akademia – Foru Zuzenbidearen eta Zuzenbide Autonomikoaren eremuko ekintzak diruz laguntzea.	
Organoa: Araubide Juridikoaren Sailburuordetza.	
Programa: 12180	2019
Helburua: Zuzenbide Zibilaren eta Autonomikoa hedatzea eta herritarrei ezagutaraztea. Ekintza: Dirulaguntza ematea hauek finantzatzeko: edonor sar daitekeen www.forulege.com web-orria mantentzeko, berritzeko eta edukiak sartzeko, web-orri hori beti eguneratuta egon dadin Euskal Zuzenbide Zibilaren arabera. 1. adierazlea: web-orrialdeen aurreko bertsioak eta orrialde horien bitartez argitaratutako informazioa alderatzea, mantentze- eta eguneratze-lanak egin direla egiaztatzeko. 2. adierazlea: aipatu orrialdeetan egindako kontsultak.	8.000

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.

4. helburu estrategikoa: Euskal Zuzenbide Zibilaren eta Autonomikoari buruzko ikasketa, zabalkundea eta informazio publikoa eguneratzea 2019ko ekitaldian.		
Dirulaguntzaren lerroa: Zuzenbidearen Euskal Akademia – Foru Zuzenbidearen eta Zuzenbide Autonomikoaren eremuko ekintzak diruz laguntzea.		
Organoa: Araubide Juridikoaren Sailburuordetza.	2019	
1. programa: 12180	Zenbatekoa (€)	%
4. kapitulua	8000	100
Guztira	8000	100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: zer sektoreri zuzentzen zaion eta emateko prozedura.

4. helburu estrategikoa: Euskal Zuzenbide Zibilaren eta Autonomikoari buruzko ikasketa, zabalkundea eta informazio publikoa eguneratzea 2019ko ekitaldian.	
Dirulaguntzaren lerroa: Zuzenbidearen Euskal Akademia – Foru Zuzenbidearen eta Zuzenbide Autonomikoaren eremuko ekintzak diruz laguntzea.	
Organoa: Araubide Juridikoaren Sailburuordetza.	
Programa: 12180	
Sektore hartzaileak:	Eragile juridikoak (abokatuak, prokuradoreak, erregistradoreak, notarioak, fiskalak, epaileak…).
Emateko prozedura:	Dirulaguntza izenduna Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren aginduaren bitartez.

3. LAN HARREMANEN ZUZENDARITZA

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: helburuak, ekintzak eta adierazleak.

5. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egindako jardun sindikalaren finantza-laguntza, jardun horren helburuak zuzen betetzeko.
Dirulaguntzaren lerroa: Euskal Autonomia Erkidegoan 2015eko ekitaldiari dagokion jardun sindikala finantzatzeko dirulaguntzen banaketa.
Organoa: Lan Harremanen Zuzendaritza.
Programa: 12130
Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorraren akordioa betetzea. Ekintza: 2015. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak zituzten sindikatuei dirulaguntzak ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorraren akordioan adostutako banaketaren arabera. - 1. adierazlea: Sindikatuen ordezkaritasun sindikal globala estatutuaren mendeko pertsonalaren eta funtzionarioen eremuan, baita langile lan-kontratudunen eremuan ere. - 2. adierazlea: Negoziazio Mahai Orokorrean sindikatuek dituzten ordezkarien kopurua. - 3. adierazlea: Mahai Sektorialetan sindikatuek dituzten ordezkarien kopurua.

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publikoaren globalarekiko finantzaketa-ehunekoa.

5. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egindako jardun sindikalaren finantza-laguntza, jardun horren helburuak zuzen betetzeko.		
Dirulaguntzaren lerroa: Euskal Autonomia Erkidegoan 2014ko ekitaldiari dagokion jardun sindikala finantzatzeko dirulaguntzen banaketa.		
Organoa: Lan Harremanen Zuzendaritza.	2019	
Programa: 12130	Zenbatekoa (€)	%
4. kapitulua	432.000 €	100
Guztira	432.000 €	100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: zuzenduta dagoen/ dauden alorra/ k eta emateko prozedura.

5. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egindako jardun sindikalaren finantza-laguntza, jardun horren helburuak zuzen betetzeko.	
Dirulaguntzaren lerroa: Euskal Autonomia Erkidegoan 2014ko ekitaldiari dagokion jardun sindikala finantzatzeko dirulaguntzen banaketa.	
Organoa: Lan Harremanen Zuzendaritza.	
Programa: 12130	
Sektore hartzaileak:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean ordezkatutako sektoreetan ordezkariak dituzten sindikatuak: ELA, LAB, CCOO, UGT, SATSE, SME, STEE-EILAS, ERNE, ESAN, SIPE eta HITZA.
Emateko prozedura:	Zuzeneko dirulaguntza Gobernu Kontseiluaren erabakiaren/hitzarmenaren bitartez.

4. HERRITARRAK HARTZEKO ETA ADMINISTRAZIOA BERRITZEKO ETA HOBETZEKO ZUZENDARITZA

a) Gardentasuna eta gobernamendu ona sustatzea.

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: helburuak, ekintzak eta adierazleak.

6. helburu estrategikoa: Open Data Euskadi webgunearen berri ematea eta haren datu-katalogoaren potentziala erakustea, datu irekien erabilera eta haietatik eratorritako zerbitzuen sorrera sustatzea, bai eta datuok berrerabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboek gehien eskatzen dituztenak zehaztea, datu horiek irekitzeko ahalegin handiagoa egiteko.
Dirulaguntzaren lerroa: Opendata Euskadi 2019 sariak.
Organoa: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.
Programa: 1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA
Helburua: 2009ko abenduaren 29an, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen abian jartzea datu publikoak irekitzeko proiektua –publikotzat ulertuz pribatutasun-, segurtasun- edo jabetza-murrizketarik ez dituzten datuak– Sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legean xedatutakoa betetzeko.

Proiektuaren helburua da: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren informazio-gardentasuna handitzea, sektore publikoan elkarreragingarritasuna hobetzea, berrikuntza sustatzea eta aberastasuna sortzea, datu publikoei balioa emanez.

Eusko Jaurlaritzak formatu berrerabilgarrian eta irekitako erabilera-lizentzien bidez ematen ditu argitara datu horiek, Open Data Euskadi webgunean (https://opendata.euskadi.eus), hirugarren pertsonek datu horietatik eratorritako zerbitzuak sor ahal ditzaten.

Open Data Euskadik (https://opendata.euskadi.eus) badu katalogo bat, balio ekonomiko eta sozial handiko 2500 datu-multzo baino gehiago dituena; horien artean, honako datu hauek nabarmen daitezke: estatistikoak, geografikoak, administraziokoak, ingurumenekoak, turistikoak eta meteorologikoak.

Open Data Euskadin argitaratzen diren datu publikoak irekitzeko proiektuaren estrategiak hiru ardatz hauek ditu:
1.– Antolakunde publikoak eraldatzea, datu irekien kontzeptua lan-dinamikan sar dezaten.
2.– Eskainitako datuen kalitatea handitu eta hobetzea.
3.– Datuok berrerabili eta kontsumituko dituzten pertsonen kolektiboa sortzen laguntzea, aberastasuna eta gizarte-balioa sortzeko.

Ardatz horietako hirugarrenari jarraituz, Eusko Jaurlaritzaren datu irekiak berrerabiltzeko lehiaketarako dei egiten da. Lehiaketaren helburuak hauek dira: Open Data Euskadi webgunearen berri ematea eta haren katalogoaren potentziala erakustea, datu irekien erabilera eta horietatik eratorritako zerbitzuen sorrera sustatzea, bai eta datuok berrerabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboek gehien eskatzen dituztenak zehaztea, datu horiek irekitzeko ahalegin handiagoa egiteko.

Ekintza: Datuak berrerabili eta kontsumitzen dituen pertsona-taldea zabaltzea aberastasuna eta gizarte-balioa sortzeko.

1. adierazlea: Aurkeztutako hautagai-kopurua.
2. adierazlea: Opendata Euskadiko datu irekien zenbat multzo erabili diren.

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.

6. helburu estrategikoa: Open Data Euskadi webgunearen berri ematea eta haren datu-katalogoaren potentziala erakustea, datu irekien erabilera eta haietatik eratorritako zerbitzuen sorrera sustatzea, bai eta datuok berrerabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboek gehien eskatzen dituztenak zehaztea, datu horiek irekitzeko ahalegin handiagoa egiteko.		
Dirulaguntzaren lerroa: Opendata Euskadi 2019 sariak.		
Organoa: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.	2019	
Programa: 1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA	Zenbatekoa (€)	%
4. kapitulua **Guztira**	14.000 14.000	100 100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: zer sektoreri zuzentzen zaion eta emateko prozedura.

6. helburu estrategikoa: Open Data Euskadi webgunearen berri ematea eta haren datu-katalogoaren potentziala erakustea, datu irekien erabilera eta haietatik eratorritako zerbitzuen sorrera sustatzea, bai eta datuok berrerabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboek gehien eskatzen dituztenak zehaztea, datu horiek irekitzeko ahalegin handiagoa egiteko.	
Dirulaguntzaren lerroa: Opendata Euskadi 2019 sariak.	
Organoa: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.	
Programa: 1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA	
Sektore hartzaileak:	Teknologia berriei lotutako parte-hartzaileentzat da deialdia, hau da, Eusko Jaurlaritzako datu publikoak erabiltzeko ezagutza-maila duten herritarrei zuzendua, jendeari balio erantsia ekarriko dion zerbitzuak, txostenak, web aplikazioak edo gailu mugikorretarako aplikazioak sortzeko.
Emateko prozedura:	Norgehiagoka: Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez egingo da deialdia.

b) HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: helburuak, ekintzak eta adierazleak.

7. helburu estrategikoa: Herritarrek parte hartzeko proiektuen bitartez, erakundeen laguntzarekin edo gabe, herritar antolatuek sortutako balio publikoa aitortu eta

ikusaraztea, Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria hedatzeko konpromiso gisa.
Dirulaguntzaren lerroa: Elkarlan Sariak 2019.
Organoa: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.
Programa: 1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA
Helburua: 2016-2020 aldirako gobernu-programaren helburuetako bat da, besteak beste, herritarren parte-hartzea sustatuko duen administrazio ireki garden eta efikaz bat lortzea eta, ekimenen eremuan, Euskadiko demokraziari eta 2014. urtean onartutako herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriko konpromisoak gauzatzea. Konpromiso horietako bat hauxe da: «esperientzia berritzaileen garapena sustatzea gure kultura demokratikoan berriak izan daitezkeen eta parte hartzea bultzatzeko formula desberdinak esperimentatzeko aukera ematen duten proiektu pilotuei babesa emanez». Aurreko konpromisoa 2015., 2016., 2017. eta 2018. urteetan gauzatu zen, Eusko Jaurlaritzak balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako antolatzen dituen «Elkarlan» sarien deialdien bidez, eta bosgarren edizio honen bidez, berriz egiten da deialdia, xede izanik herritar antolatuek eta ez antolatuek aurkeztutako proiektuak saritzea. Proiektuok balio publiko partekatua sustatu eta gizarteko erronkak eta beharrak ase behar dituzte sei jarduera-eremu hauetakoren batean: osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikasketa–kultura, kohesio soziala eta open data kultura. Halaber, proiektuek, diseinu- eta ezarpen-fasean, pertsona eta kolektiboen ahalduntze-prozesua sustatzeko gaitasuna erakutsi beharko dute, ezaugarri gehigarri gisa. Ekintza: Herritarrek parte hartzeko programak aintzatestea, herritar antolatuek zein antolatu gabekoek bultzatuak, balio publikoaren sorkuntza sustatzen duten neurrian. 1. adierazlea: Aurkeztutako proiektuen kopurua. 2. adierazlea: Zenbat boto eman dituzten herritarrek web plataforman.

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.

7. helburu estrategikoa: Herritarrek parte hartzeko proiektuen bitartez, erakundeen laguntzarekin edo gabe, herritar antolatuek sortutako balio publikoa aitortu eta ikusaraztea, Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria hedatzeko konpromiso gisa.		
Dirulaguntzaren lerroa: Elkarlan Sariak 2019.		
Organoa: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.	2019	
Programa: 1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA	Zenbatekoa (€)	%
4. kapitulua	18.000	100
Guztira	18.000	100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: zer sektoreri zuzentzen zaion eta emateko prozedura.

7. helburu estrategikoa: Herritarrek parte hartzeko proiektuen bitartez, erakundeen laguntzarekin edo gabe, herritar antolatuek sortutako balio publikoa aitortu eta ikusaraztea, Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria hedatzeko konpromiso gisa.	
Dirulaguntzaren lerroa: Elkarlan Sariak 2019.	
Organoa: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.	
Programa: 1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA	
Sektore hartzaileak:	Osasunaren, ingurumenaren, garapen ekonomikoaren, ikasketa-kulturaren eta kohesio sozialaren jarduera-eremuetan, honako hauek soilik aurkez ditzakete proiektuak deialdi honetara: eskabidea aurkezteko unean jarduera nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen duten eta egoitza soziala bertan duten irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoek.
Emateko prozedura:	Norgehiagoka: Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez egingo da deialdia.

5. INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOETAKO ZUZENDARITZA

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: helburuak, ekintzak eta adierazleak.

8. helburu estrategikoa: Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak sustatzea Euskadiko biztanleguneetan.
Dirulaguntzaren 1. lerroa: Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak sustatzea Euskadin «eremu zuritzat» jotzen diren biztanleguneetan. Denborazko eremua: 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldiak. **Dirulaguntzaren 2. lerroa: Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak sustatzea 2019 eta 2020rako Euskadin «eremu zuritzat» jotzen diren biztanleguneetan. Denborazko eremua: 2019 eta 2020ko ekitaldiak.**
Organoa: Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritza.
Programa: 12140
Helburua: Laguntza ekonomikoa ematea, banda zabal ultralasterra duten sareak heda daitezen Euskadin «eremu zuritzat» jotzen diren biztanleguneetan. Ekintza: Euskadiko biztanleguneetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzak ematea. Adierazlea: Abiadura handiko Internet-zerbitzua duten biztanleguneen kopurua.

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.

8. helburu estrategikoa: Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak sustatzea Euskadiko biztanleguneetan.		
Dirulaguntzaren 1. lerroa: Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak sustatzea Euskadin «eremu zuritzat» jotzen diren biztanleguneetan. Denborazko eremua: 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldiak.		
Organoa: Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritza.	2019	
Programa: 12140	Zenbatekoa (€)	%
7. kapitulua	2.070.589,70	100
Guztira	2.070.589,70	100
Dirulaguntzaren 2. lerroa: Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak sustatzea 2019 eta 2020rako Euskadin «eremu zuritzat» jotzen diren biztanleguneetan. Denborazko eremua: 2019 eta 2020ko ekitaldiak.		
Organoa: Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritza.	2019	2020

Programa: 12140	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%
7. kapitulua	213.370,64	100	500.000	100
Guztira	213.370,64	100	500.000	100

4. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura.

8. helburu estrategikoa: Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak sustatzea Euskadiko biztanleguneetan.	
Dirulaguntzaren 1. lerroa: Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak sustatzea Euskadin «eremu zuritzat» jotzen diren biztanleguneetan. Denborazko eremua: 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldiak. **Dirulaguntzaren 2. lerroa: Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak sustatzea 2019 eta 2020rako Euskadin «eremu zuritzat» jotzen diren biztanleguneetan. Denborazko eremua: 2019 eta 2020ko ekitaldiak.**	
Organoa: Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritza.	
Programa: 12140	
Sektore hartzaileak:	Sektore pribatuko pertsona fisikoak edo juridikoak, Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorraren 6. eta 7. artikuluetan xedatutakoaren arabera behar bezala gaitutako operadore-izaera dutenak.
Emateko prozedura:	Norgehiagoka: deialdia Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren aginduaren bidez egingo da, eta laguntzaren esleipena Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordearen ebazpenaren bidez.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua